

Pedro de Irizar (1910-2004) Azkoitiko semea berriz ere omentzen dugu gaurkoan, baina modu bereziz oraingoan, bere jaioterrian delako eta are Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen historian hain esangura handikoa den Intsaustiko jauregi honen horma barruetan delako, elkarte honetako kide izan zelako, Euskaltzaindiko urgazle (1947) eta ohorezko kide (1987) izanez batera.

Ez naiz sartuko beronen biografia alorrean, bai berberak *Memorias de un vasólogo* (2002) liburuan zein bestek, hala Rikardo Badiolak “Bidegileak” bilduman (2006), dihardutelako horrezaz.

Baina neure alderdi biografikotik abiatuko naiz. Gazte-gaztetxotan izan nuen Pedro de Irizarren berri. Batxilergoko ikasle ginela eta euskara gaietan artean zaletuak eta zeozer ikasiak, Pedro Puxana abade euskaralaria suertatu zen gure herriko parroko 70. inguruko urteetan. Oletako (Aramaio) semea eta euskara gaietan, batez ere aditzari buruz, asko landua, eta bereziki herri-hizkera mailako erabilerena. Oletako aditzaz eta Angiozargoaz (Bergara) lan monografikoa aterako zuen gerorago. Pedro Puxana izan zen Irizarren laguntzaile ugarietariko bat, eta Puxanak ipini zizkidan eskuetan haren galde-zerrenda batzuk, Morgako adizkiez nik hornitzeko. Ez naiz gogoratzen guztiei, baina inkesta batzuei erantzun nien behintzat, ondoen nekien bezala, ez dakit garaiz heldu ziren baina.

Pedro Irizarren nire azken aurrez aurreko oroitza, bere zahartzaroan Bilbon Mendebalde elkarteak, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan bi egunez eratu zituen jardunaldien amaieran eskaini zion omenaldian. Orain hamaika urte (1999), maiatzaren 15ean izan zen, eta hitzez dihardudan honen eskutik jaso zituen saria eta esker oneko hitzak. Esker onezko hitzetan esan nion Azkoitiak eman dituen gizon handi banakoetarikoa zela, eta euskal literaturaren alde egin duten klasiko bi gogorarazi nizkion: Xabier Maria Munibe, harako *Gabon Sarien* (1762) egilea, eta Bizenta Mogel, *Ipui Onak* (1804) alegi-bildumaren idazlea, jaiotzez behintzat bertokoa, eta Pedro Irizarri aurretiko bion pareko eserlekua eskaintzen nion. Ez dira hemen zertan aipatu Azkoitiak artean eta gerora eman dituen euskal idazle baliotsuak.

Euskaltzaindiari, Irizarren dialektologia lana gogoratzea eta erakunde gisa lan horretan izan duen parte gogoratzea dagokio gaur, eta Euskal Hizkeren Herri Atlas (EHHA) egitasmoarekin uztardura egitea. Bigarren honez egitasmoko lankide dugun Amaia Jauregizar arduratuko da ondoren.

1991. urtetik aurrera Euskaltzaindia Irizarren dialektologia egitasmoari atxikia ageri da, euskal aditz laguntzailea euskalkiz euskalki biltzen duten liburuki handi mardulen edizio lanean. Adizkien corpus handi hori hamabost liburukitan banaturik dago; bilduma bat osatzen dute. Izan ere, lana burutzea da bat eta argitara ematea beste bat. Irizarren neurriko edo gutxiagoko lan asko izan dira gure artean, sekula argirik ikusi ez dutenak. Irizarrek bai izan du lanak argitaratzeko zoria, eta bizian ikusteko lanaren edizioak. Euskaltzaindiarekin batera gure lurralde diferenteetako aurrezki kutxak izan dira ediziook diruz lagundu dituztenak. Baina artean ere liburuki bi atereak zituen egitasmo honen konpendio gisa: *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (1981).

Bederatzi euskalkitan barrena eginak ditu Irizarrek euskal aditz laguntzailearen biltze-lanok: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, zuberotarra eta erronkaria batetik; goi nafarreraren barruan dialekto bi bereizten ditu, iparrekoa eta hegokoa, eta behe-nafarreraren barruan ere bi: sartaldekoa eta ekialdekoa. Euskalki batzuk liburuki bakarrean, gehienak bitan eta bat hirutan jasorik. Euskal aditz laguntzailearen tokian tokiko errealizazio guztiak edo ia guztiak, hitanoa barne dela, liburuki sorta luzean banaturik emanak.

Harritzekoa da, besteak beste, euskalki bakoitzeko zenbat tokitan burutu diren inkestak, eta batez ere Nafarroa bietan, behe-nafarreran eta goi-nafarreran erregistratu den herri, auzo edo delako gunen kopurua.

Gaur euskarak bere azken arrastoa galdua duen eremuko hainbat lekukotasun dira Irizarren corpusean. Gerraosteari dagokionez beronena dugu dialektologia arloko bilketa zabal

goiztiarra; 70. ingurutik aurrerako hamarkada bietan jaso da batik bat bere corpusa; hau da, euskara gure herri askotan oraindik betiko osasunean zegoen garaian eta hiztun gehienek ezpainenatzen transmisioz ikasitako modu-moduan loratzen zen aldian. Eta horretan du, besteak beste, ekarri baliotsua; gerora transmisioa eten den eremuetako lekukotasun asko jaso dituela.

Geure artean esan dezakegu: tamal gorria, horraitio, aditz laguntzailera mugatu izana biltze-lan hori. Ez ote zen oparago izango, etnotestoak edo herri-jakintza edukiak jaso izan balitu? Irizarrek bere lan-esparrua zehatz mugatu nahi izan zuen, zientzia parametroek eskatzen duten gisa. Artean hor ziren Joxe Migel Barandiaranek eta honen inguruko Etniker taldeek zerabilten biltze-lana, gerora “Atlas Etnográfico de Vasconia” bilduma osatuko duena; hor zen ere Aranzadi Elkarrean bultzaturiko “Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa” (1983-1990), eta unibertsitate munduan, ikertzaile eta ikasleek egiten zituzten monografiak.

Baina nondik hartu zuen Irizarrek aditz laguntzailearen azterketa dialektologikoa egiteko burubidea? Gudu aurreko Euskaltzaindian R. M. Azkuek abian ipini zuen “Erizkizundi Irukoitza” (1925), Orixek bete zuena zuen abiapuntu. Eta gudu ostean goizetitzo hasiko zaigu gai horrez arduratzen: 1947-48an emango du jadanik lan luze bat argitara *BAP* aldizkarian, “Formación y desarrollo del verbo auxiliar vasco” gaia ardatz duela. Euskal aditza, bestalde, gure gramatikarien, aspaldiko eta oraintsu artekoen, arlorik kutunena izan da; euskal hizkuntzaren bereizgarri agerienekotzat jo izan delako batetik; eta dialektologo baten kasuan, duen barietateagatik; lekutik lekura aldatzen baitira ia adizkiak, euskalki batetik irten gabe ere. Baina bazuen beste arrazoi bat ere: azter eremu objektiboa da aditza, sintaxia edo lexiko-semantika baino zehatzagoa eta parametro batzuetan finkatzen errazagoa.

Euskal aditz laguntzailearen corpus ugari hori liburuki mordo baten barrena banaturik egotea ez da gaur eroso kontsulta egiteko. Euskaltzaindiaren azken ekarria zailtasun hau gainditzeko, corpus osoa sarean sartu eta kontsultagarri bilakatzea izan da. Eta [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net) webgunean hor duzue guztiok gune bat, Pedro de Irizar: *Morfología del Verbo Auxiliar Vasco*, zaletuen zein jakitunen erabilgarri.

Hau zen nire sarrera; ondoren Irizarren bildumak EHHA egitasmoarekin dituen kidetasun-diferentzien irudipen bat eskainiko Amaia Jauregizar ikertzaileak.

Azkoitian, 2010eko irailaren 29an

Adolfo Arejita, EHHA egitasmoaren zuzendari akademikoa